

GASTEIZKO UDALA. Diru-laguntzen araudian hainbat aldaketa egitea onartu zuten atzo PPK, PSEk eta UAk

'ETA ez' leloa onartzen ez duenak ez du diru laguntzarik jasoko

ETAren aurkako logoa Gasteizko Udaleko logotipoaren alboan agertzea onartu dute

Erredakzioa | **GASTEIZ**

ETAren indarkeria egunero gaitzestea nahi du Gasteizko Udalak, eta, horretarako, ika-mika sortu duen erabakia adostu zuten atzo PPK, PSE-EEk eta UAk. Hemendik aurrera, 'ETA ez' leloa Udalen logotipoaren ondoan agertzea onartu zuten atzoko udal batzarrean PP, PSE-EE, UA, EAJ, EA eta IU alderdiek. Batasunak, berriz, mozioaren kontra bozkatu zuten.

Polemika, ordea, mozioaren hirugarren eta laugarren puntuek eragin zuten. Izan ere, aurrerantzean Udalak diruz lagundutako edo babestutako edozein ekitaldiren afixan 'ETA ez' leloa agertzen ez duten talde edo erakundeei, ez zaie inolako subentziorik emango. Gauzak hala, Gasteizen edozein ekitaldi edo ikuskizun antolatu nahi duenak, eta horretarako Udalarri diru laguntza eskatzen diotanak, ETAren borroka armatua arbuia beharko du.

Erabaki hori aurrera eramateko, diru laguntzen araudian aldaketak egitea adostu zuten PPK, PSE-EEk eta UAk. EAJ, EA eta EB-IU, berriz, abstenitu egin ziren. UAKo zinegotzi Jose Antonio Pizarrok azaldu zuenez, neurri horren xedea da

ETAren aurkako gaitzespena egunero azalaraztea, «hori delako egunegun biolentoak bakarrezko modurik egokiena».

Atzo adostutako erabakiak PPK hasiera batean egindakoa ordezkatzeko du. PPren nahia zen Udalen diru laguntza jaso nahi zuen elkarte eta erakundeek ETAren indarkeria idatziz gaitzetsi behar izatea.

Eztabaida sutua alkatearen eta Batasuneko eledunaren artean

Udal batzarrean, eztabaida sutua izan zen Alfonso Alonso alkatearen eta Jose Enrike Bert Batasuneko zinegotziaren artean. Giza eskubide ororen defentsaren aldeko adierazpena sinatzeko gonbita egin zuten Bertek gainontzeko taldeei, «inolako indarkeriarik gabeko Gasteiz bat» lortzeko. Era berean, mozia kritikatu zuen, esanez, PPK eta PSE-EEk askotan txalotu dituztela oinarriko eskubideen urraketak, eta Unai Romanok pairatutako torturak aipatu zituen.

Alonsok «zinikoa» deitu zion Berti, eta leporatu zion legegintzaldian egondako berrogei atentatu gaitzetsi ez izana. Horretaz gain, ETA eta Batasuna gauza bera direla adierazi zuen Gasteizko alkateak. Diskurtso



MANUEL REGUEIRA / EFE

Gasteizko Udaleko zinegotziak elkarren artean hitz egiten atzoko saioan.

ANDRA MARI ZURIAREN JAIK

Eta txupinazoa zeinek?

Edurne Unzueta / **GASTEIZ.** Giroa epeltzeko haizemaileen laguntzaz, Gasteizko Udaleko zinegotziak erruz mintzatu dira txupinazoaren inguruko eztabaidan. Hala ere, haizemaileen laguntza ez da nahikoa izan alderdi bakoitzaren proposamenak aldatzeko, eta azkenean, txupina nork jaurtiko duen erabaki gabe dago oraindik.

Su-etenaren garaian onartu zuen Udalak jaien hasiera iragartzen duen txupinazoa, urtero alderdi politiko batek jaurtitzeko araudia. Hala erabaki eta hala gauzatu da aurten arte. Izan ere, PP, PSE-EE eta UA alderdiek araudia aldatu eta Baskonia saskibaloitalko taldeari eman

nahi diote Batasunari dagokion txupinazoa jaurtitzeko eskubidea. Baskoniak, bere aldetik, txupina botatzeko alderdien adostasun politikoa eskatu zuen. EAJ-EA eta Batasuna, araudia aldatzearen aurka azaldu ziren atzoko Udalbatzan, eta IU-EBko zinegotziek, bestalde, ez zuten bozketan parte hartu.

Kontuak kontu, Baskoniak eskatzen duen adostasun politikoa lortu ez denez, Alfonso Alonso Gasteizko alkateak astebeteko epea luzatu dio EAJ-EA koalizioari, iritzia alda dezan eskatuz. Koalizioak iritziz aldatu ezean, Baskonia taldeak erabaki beharko du txupinazoa jaurti edo ez. Hala, Baskoniak ezezkoa ematen badio alkatearen proposamenari, aurtengo txupinazoa Alfonso Alonsok berak jaurtiko du.

bertsua erabili zuen Patxi Lazkoz sozialistak mozia defendatzeko orduan. Bestalde, Maria Jesus Agirre EAJko bozeramaileak diru laguntzen araudia aldatzeko puntuaren «zehaztasun fata» kritikatu zuen, eta «bidegabekeria» dela salatu zuen.

ERREFUXIATUAK. Askatasunak Venezuelaren elkartasuna nabarmendu du

Arturo Cubillas errefuxiatua atxilotu eta berehala aske utzi dute Venezuelan

Agentziak | **PARIS**

Arturo Cubillas Fontan euskal errefuxiatua atxilotu eta handik ordu batzuetara aske utzi zuten herenegun Venezuelen. Cubillas San Bernardino herriko hotel batean sartzen ari zela atxilotu zuten Venezuelako Inteligentzia Zerbitzuko polizia eguerdiko 12:15ean. Emakumeen Institutu Nazionalak an-

tolatutako ekitaldi batera zihan errefuxiatua. Bertan zeuden Ainhoa Etxaide eta Itziar Lopategi LABeko kideek atxilotakoren berri eman zuten.

Operazioaren kontrako erantzuna berehala iritsi zen Hugo Chavez presidentearen aldeko sektoreetatik eta oposiziotik. Hainbat kidek gestioak egin zituzten Cubillas aske uzteko. Azkenean, arratsaldeko 18:00etan

kargurik gabe aske utzi zuten. Iturri polizialek jakinarazi zuten euskal errefuxiatuak ez duela Espainiako Auzitegi Nazionalean inolako auzirik irekita.

Cubillas Frantziara atxilotu zuten 1987an eta Aljeriara estraditatu zuten. 1989tik Venezuelan bizi da. Bertako Inteligentzia Zerbitzuek Espainiaren «presiopean» jarduten dutela salatu zuen Askatasunak. «Madrilek Euskal Herriak bizi duen salpuespen egoera inposatu nahi dio munduan zehar barreiatu dagoen euskaldun orori», esan zuen. Venezuelaren elkartasuna goraiatu zuen.

ARABAKO EUSKAL HOTSAK
ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA
LIBURUAK SALGAI!!!

2 liburu dira: bat **EUSKARAZ** bestea **GAZTELERAZ**
296 orrialde
Salneurria: 18,8 € (liburudendan)
PREZIO BEREZIA HARPIDEDUN eta **BAZKIDEENTZAT** (balegora etortze): 17,5 €
Honenak librudendetan salgai: Casa del Libro, Zuloa, Arriaga, Albeniz, Ayala eta Study (Gasteizen). Gasteiztik kanpo: librudenda nagusietan

Arabako euskal jatorriko toponimiak antzina bizenleko iragan euskaldunak erakusten ditu. Baina, errealitate hau baloiztatzen duten bestelako lekukotzak al daude? Gure arabasok menderik mender gahien arabarri ohi zuten hizkuntzaren aztararik utzi al dute? Erreferentzia zela idazkinek utzi al digute? Zer eman du Arabak euskalaren historian? Zer euskara mota mintze zen?

Zalantza hauek guztiak liburu honetan argitu ahal izango dituzue. Edukietan abentak eta bisita oso, dokumentu original ugari, argazkiak eta mapak dituela. Gure zure, historiarik atal garrantzitsu hau ezagut dezazun, eta aldi berean, emandako datuen bitartez -Aktak, kontu-liburuak, nobiziaz espedituak, testamentuak, ezkerzak, inbizioaren epaketak, arabaren euskarazko idatziak...- egiaztatu Araban euskara erabilpen orokorreko hizkuntza izan dela, mende askotan zehar gohonenak izaki, eta hainbat garaletan konsolidatzen ezagutzen eta hitz egiten zen bakarra.

EZAGUTU ZURE HISTORIA!!
IRAGANAREN EZAGUTZAK ETORKIZUNAREN
INDARTZEA DAKARRELAKO!!

ARABAKO EUSKAL HOTSAK-ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA
ERAKUSKETA IBILTARIAK udan ere aurrera darral:

¶ LANTARON: Uztailak 13-25 ¶ EKORRA: Uztailak 28-Abuztuak 12 ¶ LEZA: Abuztuak 14-Irailak 2 ¶ LANGRAIZ OIKA: Irailak 14-29